



PRENTSARAKO OHARRA

18/05/15

## **Gizarte Ekintzako diputatuak Bizkaiko Tutoretza Erakundearen eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen 2019ko proiektuak zehaztu ditu**

Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako diputatuak, Bizkaiko Tutoretza Erakundearen (BTE-ITB) eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFE-IFAS) 2019rako proiektuak zehaztu ditu gaur goizean jagokon batzordearen aurrean, eta baita horreen funtzionamentua eta egitura be. Agerraldiak Talde Mistoak eta EH Bilduk egindako eskariei erantzun deutse.

Lehenengo, Aldundiko ordezkariak BTE-ITBri buruz egin dau berba, eta bere helburu nagusia, “urritasunak daukiezan personak bizitza duina eta osoa aurrera eroatea danon zeregina dala gizarteari transmitidutea” dala esan dau. Horretarako, BTE-ITBk hitzarmenak ditu tutoretzako hainbat erakundegaz, Futubidegaz, Ondoanegaz eta Zubietxeagaz, besteak beste, eta, ganera, hartu-emon estua dauka –hitzarmen barik bada be– Hirugarren sektoreko beste erakunde batzuekaz, Caritasegaz, Zaintzalanegaz, Goiztirigaz edo Suspergintzagaz, beste batzuen artean.

Giza baliabideei jagokenez, hurrengo urteetarako hainbat erronka zehaztu ditu Sánchez Roblese: Gizarte Zerbitzuen Lege barrira eta Zerbitzuen Zorrora egokitzea; lan komunerako protokoloak ezartea; informazinarako tresnak hobetzea; ganerako administrazio publikoakaz interoperabilidadearen arloan aurrea egitea; eta tutoretza jasoten dabenei eskintzen jaken arretaren etenbako hobekuntzari laguntzea, beste batzuen artean. Holan, Gizarte Ekintzako diputatuak azaldu dauenez, 2017an eta 2018an BTE-ITBko beharginen erosotasuna eta segurtasuna be bilau da, hainbat ekintzaren bidez.

Horrez gain, bere esku-hartzean adierazo dauenez, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzeko Justizia Ministerioak daukan aurreproiektuak bukaerea emongo deutso Ordezkaritza edo Ordezkapen Ereduari, eta Laguntza Eredua ezarriko dau. Holan, diputatuak azaldu dauen moduan, “ia guztiz” mugatuko da ezintasunaren tresnea, eta pisu handiagoa emongo jako sendatzailearen figurari. BTE-ITB aldaketa horretara “egokitu beharko da”.

Erantzunen txandan, Bizkaiko Tutoretza Erakundeak egiten dauen beharra modu positiboan baloreteaz aparte, Talde Mistoko ordezkariak adierazo dau gero eta zeregin gitxiago daukien Foru Aldundiko beste erakunde batzuetako beharginek BTE-ITBko zerbitzuak egin daikiezala, eskariaren igoera posiblearen aurrean. Idea hori aitatu dau, baita be, EH Bilduko batzordekideak, eta, esan dauenez, “beharginak eredu barrira egokitu beharko dira”. Podemos Bizkaia taldeak, bere aldetik, sailera bideratu diran beharginen eskarietara eta kanpoko indarkeriaren aurreko protokolo barrietara zuzendu gura izan dau eztabaidea.

Talde Popularrak, Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeek modu positiboan balorau ditue diputatuaren agerraldia eta BTE-ITBk egiten dauen beharra.

## GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA (GUFÉ-IFAS)

Gizarte Ekintzako diputatuaren bigarren agerraldia Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen gainekoa izan da. Bere berbetan, “arreta integrala eta pertsonalizaua eskintzen deute Gizarte Ekintza Sailak bialtzen deusazan persona guztiei eta, batez be, behar konplexuagoak dituenei”. Horretarako, 2018an 881 behargin eta hainbat arlotan aritzen diran zentroak ditu. Adierazo dauenez, ekitaldi honetarako aurreikusitako aurrekontua 106 milioi eurokoa da.

Esku-hartze horri jagokonez, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen gainean emondako informazinoa “osoa” dala esan dauen arren, EHB arduratuta agertu da erakundearen etorkizuna dala eta, eta Foru Aldundiaren aurreikuspenen gainean galdetu dau. Talde Mistoak, bere aldetik, datorren ekitaldirako aldatetaren bat egiteko ezelango aurreikuspenik ete dagon jakin gura izan dau. Podemos Bizkaiari jagokonez, azpiegituren eta horreen mantentze-lanen eta EEP-OPEaren inguruan galdetu deutso Aldundiari. Azpiegituren Planari jagokonez, Aldundiko arduradunak hori zentro bakotxera egokitzen dala adierazo dau; EEP-OPEaren egutegiari jagokonez, “lehenengo deialdian gagoz, eta bigarrena 2018ko bukaeran eta 2019ko hasieran izango dala aurreikusten da”.

Aurreko agerraldian gertau dan moduan, Talde Popularrak eta Euskal Sozialistak taldeek eskertu egin dabe jasotako informazinoa. Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariak, diputatuari bere laguntza erakusteaz gain, “modernizazinarako eta barrikuntzarako” egiten ari dan esfortzua eta profesionaltasuna eta interinidadearen murrizketea jarri ditu balioan.

NOTA DE PRENSA

15/05/18

## **La diputada de Acción Social detalla los proyectos del Instituto Tutelar de Bizkaia y del Instituto Foral de Asistencia Social para 2019**

La diputada de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha detallado esta mañana ante la Comisión correspondiente los proyectos del Instituto Tutelar de Bizkaia (ITB) y del Instituto Foral de Asistencia Social (IFAS) para 2019, además del funcionamiento y la estructura de estos. Su comparecencia responde a una petición de Grupo Mixto y EH Bildu.

En primer lugar, la representante foral se ha referido al ITB como un ente público de derecho privado que tiene como principal objetivo el de “transmitir a la sociedad de que es labor de todos y de todas lograr que las personas incapacitadas puedan desarrollar una vida digna y plena”. Para ello el ITB cuenta con convenios con entidades tutelares tales como Futubide, Ondoan y Zubietxea además de mantener una estrecha relación – en este caso sin convenio- con entidades del Tercer Sector como Caritas, Zaintzalan. Goiztiri o Suspergintza.

En lo que a los recursos humanos se refiere, Sánchez Robles ha detallado una serie de retos para los próximos años, tales como, la adecuación a la nueva Ley de Servicios Sociales y a la Cartera de Servicios; la implementación de protocolos de trabajo común; la mejora de las herramientas informativas; el avance en el marco de la interoperabilidad con el resto de administraciones públicas; y la contribución a la mejora continua de la atención prestada a los tutelados. En este sentido la diputada de Acción Social ha explicado también que tanto en 2017 como en 2018 se ha buscado la confortabilidad y la seguridad del personal del ITB mediante a diferentes acciones.

Asimismo, en su intervención ha manifestado que el anteproyecto de Ley del Ministerio de Justicia para la modificación del Código Civil y la Ley de Enjuiciamiento Civil pondrá fin al Modelo de Representación o Sustitución dando paso a un Modelo de Apoyo. De esta manera, y tal y como ha explicado la diputada, se restringirá “casi en su totalidad” el instrumento de incapacitación dando más peso a la figura del curador. Un cambio al que el ITB “deberá adecuarse”.

En el turno de réplica, además de valorar positivamente el trabajo del Instituto Tutelar de Bizkaia, el representante del Grupo Mixto ha expresado la idea de que trabajadores de otros organismos de la Diputación Foral con funciones decrecientes pudieran cubrir servicios del ITB ante un posible aumento de demanda. En esta última idea también ha incidido la apoderada de EH Bildu, quién ha asegurado que “habrá que implementar el personal con el nuevo modelo”. Por su parte Podemos Bizkaia ha querido encaminar el debate hacia las demandas del personal trasladadas al departamento y los nuevos protocolos de violencia externa.

Tanto como Grupo Popular, como Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos han valorado positivamente la intervención de la diputada además del trabajo de la ITB.

## INSTITUTO FORAL DE ASISTENCIA SOCIAL (IFAS)

La segunda intervención de la diputada de Acción Social ha versado sobre el Instituto Foral de Asistencia Social, el cual tiene “una atención integral y personalizada a todas aquellas personas que le son encomendadas por el Departamento de Acción Social y en especial a aquellas que presentan necesidades más complejas”. Para ello en 2018 cuenta con 881 trabajadores y centros con distintos ámbitos de actuación. Asimismo, el presupuesto previsto para este ejercicio asciende a los 106 millones de euros en total.

Al respecto de esta intervención, si bien ha definido como “completa” la información sobre el Instituto de Asistencia Social, EHB ha mostrado su preocupación por el futuro del mismo y ha preguntado por la previsión de la Diputación Foral. Grupo Mixto por su parte ha querido conocer si existe alguna previsión de modificación para el próximo ejercicio. Por su parte Podemos Bizkaia ha interpelado a la diputación sobre las infraestructuras y el mantenimiento de las mismas además de sobre la OPE. En lo que al Plan de Infraestructura se refiere, la responsable foral ha manifestado que ésta se adecua a cada centro; respecto al calendario de la OPE ha explicado que “estamos en la primera convocatoria y la previsión de la segunda será a finales de 2018 o principios de 2019”.

Al igual que en la comparecencia anterior Grupo Popular y Socialistas Vascos han agradecido la información ofrecida. La representante de Nacionalistas Vascos, además de mostrar su apoyo a la diputada, ha puesto en valor el esfuerzo “hacia la modernización y la innovación” además de la profesionalidad y la reducción de la interinidad.